



# 'HERRIA KANTUAN' EMANALDIA, «BIKAINA»

Herriko artistek emanaldi berezia eskaini zuten pasa den astean Alegiako Kultur Etxean, bertaratuen gozamenerako 7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-06-15**

VIURTEA 1.461 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Skate Txapelketa ikusgarria izan zen Lopez-Mendizabal pasealekuan, San Joan jaien atarian. A. IMAZ

## «FESTA NAHI?» BADA AUKERA GUREAN

**TOLOSALDEA** Ibarren gaur amaituko dira Gazte Festak; Tolosan, berriz, atzokoa San Joan jaien atariko baina ez zen izan 4



60 emakume elkartu ziren Iruran; jai giroa izan zen nagusi eta gerora ere festa luzatu zen. A. IMAZ

## Jai giroan igaro dute Emakumea Pilotari Eguna

**IRURA** Gipuzkoako Partaidetzako I. Txapelketa Herrikoian Hernaniko Tejedor eta Galdeano izan ziren garaile; guztira 60 lagun bildu ziren 6

## Danena- Olaederrako Jon Tecedor hil da, istripuz

**VILLABONA** Atzo arratsaldean Zizurkilen izan zen Euskadiko Txapelketan jokatu behar zuen 6



Alegian pilotalekuan egin zuten jaialdia. N. URBIZU

## Ikasturte zaharrari jai giroan agur esan diote eskualdekoek 5



# San Juanetako Azoka Bereziazen bezperan, eskaintza berrikuntza

**Azoka** » Lehen gibelurdinak ikusi ahal izan ziren; hauekin batera, onddoak, zizak eta ziza hori askoa izan ziren salgai.

**PABLO ALBERDI**

San Juanetako azoka bereziaren gertutasuna somatzen zen atzo asteroko azokan. Eskaintza berrikuntzaren bat edo besterik bete zen, eta dirudienaz, datorren asterako produktuen zerrendak gora egingo du.

## Ibarrako pipar gehiago mahaiaetan

Atzo aurtengo lehenengo gibelurdinak ikusi ahal izan genuen, eta hauekin, onddoak, ziza asko eta ziza horiak ere salgai. Joan den asteko Ibarrako pipar berriak atzo mahaigehiagora zabaldu ziren, eta hauekin udaberriko barazki asko izan zen salgai goiz osoan zehar. Eskaintza, beraz zabalda izan zen.

Berdura plazan ez genuen berrikuntzarik ikusi; hori bai, ekoizle batzuk izan ziren beraien udako landareak berritzeko asmoan ura eta euria dela eta.

## » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromero	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabelina	2,80	4,00
Surfinia	2,40	-
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

## » BERTAKOAK

Perretxikoak		
Ziza horia	20,00	-
Ziza	12,00	35,00
Gibelurdina	20,00	-
Onddoa	30,00	-

## » Fruta

Marrubia	4,00	-
Urta	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

## » Barazkiak (Kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	8,00	12,00
Ibarrako piparra	8,00	10,00

Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,20	3,00
Zainzuria	12,00	-

## » Besteak

Arrautzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Artisau opil integrala	1,00	-
Irasagarra	3,00	6,00
Madalenak	3,60	-
Ogi biologikoa (900 g)	3,20	-

## » Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Ardi gazta	14,00	18,00
Behi gazta	7,00	7,50
Ardi-behi gazta	11,00	-

## » EKOLOGIKOAK

	Merk.	Gares.
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza (Kiloa)	1,60	3,04
Baratzuria (Kiloa)	1,60	6,00
Azenarioa (Kiloa)	2,00	2,50
Dilistak (Kiloa)	2,40	-
Txitxirioak (Kiloa)	2,40	-
Arroza (Kiloa)	1,90	2,00
Arbi morea (Kiloa)	4,00	-
Tipula (Sorta)	1,75	2,00
Zerba (Sorta)	2,00	-
Erremolatxa (Sorta)	1,60	-
Letxu (unitatea)	1,00	-
Aza (unitatea)	2,50	3,00
Kogoiola (unitatea)	1,00	-
Ahuntz gazta (200 g)	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

## B Blogteka info

### 1.000 lagunentzako bazkaria

Dagoeneko dena prest dugu igande honetan [gaur] ospatuko dugun Ikastola Egunerako. Gure aurreikuspen guztiak hautsi egin dira, ia 1.000 lagunek eman baitute izena bazkarirako, baina behar diren paellerak eskuratu ondoren ez da arazorik izango lagun guzti hauentzako bazkaria prestatzeko.

Ondorengo egitaraua antolatu dugu egun osorako:

- 10:30etan Bizikleta Ibilaldia Tolosan zehar

- 11:00etan Hamaiketako

- 11:30etan Jolasak: herri kirolak, ginkana, altxorren bila,...

- 12:00etan Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia

- 12:30etan Abesbatzaren emanaldia

- 14:00etan Ikastolako gurasoek prestatutako bazkaria: Paella, Arroza (Kiloa), Postrea eta Kafea. Dagoeneko 950 lagunek eman dute izena bazkarirako.

- 15:30etan Kazkabarra taldearekin Jolasak eta Puzgarriak

- 17:30etan Unsain Anaiak taldearekin dantzaldia

Egun osoan zehar trizikloak egongo dira eta Pilota Txapelkaren finala ikusteko aukera izan-

go da pantaila handian. 40. urteurrenko DVDa, liburua eta kamisetak salgai izango ditugu. Eta noski, Kilometrorak 08 Irurako materiala ere salgai izango da.

Denak gonbidatuta zaudete!!

### Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/laskorain>

### Hirukideko festen bideoa

Iragarki moduan egin den bideoa ikusteko aukera gure web-ean duzue.

Argazki bilduma ere hortxe izango duzue, saltseatu!

### Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldeko hitza.info/bl/ogak/hirukide>

**@ Blogak.** Gure blogarien berri izan dezaguzue tolosaldeko hitza.info webgunera sartu eta 'Blogak' atalean. Bertan blogariak euren ekitaldien berri, euren iritzien berri, edota iradokizunak plazaratzen dituzte gure webguneari bitartez. Sartu eta informazio zure gure blogarienguzuek. Zure ere izan zaitezke Hitzaren parte gure atal desberdinetan parte hartuz. Ez galdu aukera zure berri izan dezagun.

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

## K Komikia

## Gorka Salaberria



Urtero bezala, Tolosako Euskara eta Hezkuntza batzordeak Uxola sariak banatu ditu; aurtengoan XXII. edizioa izan da eta guztira lau mailatan bi alorretan, hizlauan eta olerkian, hiruna saritu izan dira; guztira, beraz, 24 ikasle lortu dute saria euren idazteko abileziari esker. Hemen aurkezten dira olerkiaren atalean irabazi dutenen lanak.

### NIRE BI AITONAK

Nik banituen bi aitona  
zein baino zein ile-uridinago.  
Gaur, bi amona geratzen zaizkit,  
zein baino zein edadetuago.  
Biak dira nahiko erretxinak,  
baina maitagarriak.

Nahiago nuek nire bi aitonak  
nolakoak ziren gogoratuko banu,  
Baina... ezin!

Aspaldi alde egin zuten zerura  
helbiderik utzi gabe, ordea.  
Argazkietan ikusten ditudanean  
begira ditudala iruditzen zait,  
zerbait esan behar didatela.  
Ahal banu, bila joango nintzateke hegan.

Topatuko banitu, hura poza!  
- Zatozte, zatozte amonaren ondora!  
Zoriontsu izango nintzateke.  
Gaur, zeru izartsuari begira egon naiz,  
luzaroan,  
ipar-izarrak keinu egiten zidan.  
Hori iruditzen zitzaidan.  
Zuetakoren bat al zineten?

Nik hori sinetsi nahi  
eta...  
bihar ere bilatuko zaituzet.

*Kaiet Iglesias Baraibar  
(I. maila/ Lehen Hezkuntza 3 eta 4.  
Laskorain ikastola)*

### AMA

Badakit zu zarena sortzaile,  
bi sortzaileetako bat,  
nire jainkoa zara, ama.  
nire jainkoa zara, ama.

Iluntasun sarkorretik,  
argitasun bare eta leunera,  
ezerezaren itzaletik,  
zure beso leun eta goxoetara,  
hartara eraman ninduzun, ama.

Mendeak ziruditen hilabeteetan,  
zure bular gozopean,  
laztandu egiten ninduzun,  
kantatu bitartean,

zure bularra nuen lagun, jostailu eta elikagai, ama.

Pa! Pa! Eguneroko doinua,  
begietatik darío nituen izar gardenak,  
ibai bat osatzen zuten.  
Arrotz sentitzen nintzen leku eta ordu guztietan,  
mundua erakutsi zenidan arte, ama.

Zur zara sortzaile eta jainko,  
nire sortzaile eta jainko  
AMA!

*Ioritz Egiguren Urkola  
(II. maila/ Lehen Hezkuntza 5 eta 6  
Laskorain ikastola)*

### ASKATASUN DEBEKATUA

Hegoak zabaldu eta  
aireratu egin nahiko nuke  
zeru zabalean barrena  
libre sentitzeko ohorea izan  
eta bakearen uso zuriak bezala,  
nire askatasunaren jabe izan.

Baina zaindari bezala,  
zeru urdinaren orde,  
burdinezko barroteak ditut;  
eta laguntzaile bezala,  
aire leunaren beharrean,  
bi kate astun hauek ditut.

Ni, berriz,  
uso zuria izan beharrean,

bere iraganaren akatsez damutzen den gizon  
xume bat naiz  
baina denbora oso azkar igarotzen da bazuetan,  
eta jada berandu da atzera egiteko.

Nire etorkizunaren dardoek  
ez dute jokaldi onik egin,  
eta ondorio,  
azken egunaren zain pasa beharko ditut  
geratzen diren egun luze eta tristeak;  
azken egunean ere,  
hegoak zabaldu eta aireratzeko aukerarik izan  
gabe.

*Eider Arruebarrena Albeniz (III. maila, DBH 1 eta 2.  
Laskorain ikastola)*

### MAHUMAK

Erosta, ...  
erosta, ...  
neure urubia,  
haizeak ostu dit nire arima,  
hark eraman du nuen guztia.

Barnean, orain, dolumin haundia...  
galdu ditut nire aberria,  
non dago landatu genuen herria?

Atzo bertan agertu zitzaidan Inguma,  
gaueko isiltasunaren artean,  
lokartzen ari nintzen bitartean...

mahumak, hori besterik ez,

bart izan zen izan dudana guerik  
belunena...

itzalak, gerizak,  
malkoak, negarrak...  
sumatu nuen asaben didarra,  
ezpata sastatu baninduten bezala.

euska arraza,  
adore basatia,  
leialtasun bizia:  
Nortasun berezia

*Josune Camarero Arsuaga  
(IV. maila/ DBH 3 eta 4. Hirukide Eskolapioak)*

## H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

### PILAR LANZ SANPEDRO

Luis Iruretagoiena 'Suni'  
euskal preso politikoaren ama



Ez agurrik,  
ez adiorik,  
gero arte baizik.



Tolosako Amnistiaren Aldeko  
Mugimendua eta Etxerat

TOLOSA  
2008ko ekainaren  
15a

FUNERARIA VASCONGADA  
EHORZKETAK

902 402 900  
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala  
Tolosa (Bellatokia)





Sendi Ekintza elkarteko kideak tortilla erraldoia egiten ari ziren bitartean, haurrek Xurdir-en Euskaraoketan parte hartu zuten. Bi ekitaldiak herriko plazan egin ziren. ASIER IMAZ

## Ibarran gaur amaituko dira Gazte Festak eta Tolosan sanjoanek abian dira

**Jaiak** » Txokolatea eta tortilladaz gozaten ari ziren unean Ibarran, Tolosan kirol lehia ezberdinak jokatu zituzten.

NEREA URBIZU/ASIER IMAZ

Ibarran Gazte Festak ospatzen ari dira. Atzoko ekitaldien artean, txokolatada eta tortillada aipatu behar urteroko ohitura izaki. Sabela bete ostean Alurr dantza taldeak emaldia eskaini zuen.

Tolosako sanjoanetan kirolaz eta arteaz gozatzeko aukera egon zen atzokoan. Saskibaloian aritu ziren gaztetxoak San Frantzisko erdian, sei zelaitxoren baitan, neska-zein mutilak, denak nahastuta. Arratsaldean berriz helduen txanda iritsi zen. Lopez-Mendizabal pasealekuan bien bitartean Skate Lehiaketa jokatu zen.

Arteari ere lekua egin zioten tolosarrek atzo, Trianguloko graffiti erakusketarekin. Noski, ez zen falta izan dantzarien saioa, goizean eta arratsaldean ere (hauek Leidorren aritu ziren).

### » TOLOSAKO EGITARAUA

#### Ekainak 15, gaur

■ **10:00etan.** Gimnastika erritmika saioaren emaldia. Usabal Kiroldegian.

### » IBARRAKO EGITARAUA

#### Ekainak 15, gaur

■ **12:30etan.** Poteo Herrikoa egingo da.

■ **14:30etan.** Gazte-Bazkaria Xepan.

■ **17:00etan.** Bertso Poteoa Unai Gaztelumendi, Eneritz Zabaleta, Jokin Labaien eta Ander Lizarralderekin.

■ **18:00etan.** Loatzo Musika Eskolaren emaldia plazan.

■ **21:00etan.** Lendakaris Muertos taldearen kontzertua Ibarrako Gaztetxean.



3X3 saskibaloia lehia goizean haurrek eta arratsaldean helduak ibili ziren San Frantzisko pasealekuan. NEREA URBIZU

txokoa  
**h**

antzezlanerako  
**2 sarrera pare** zozketan

Ostirala  
ekainak 20 ◦ 20:30ean  
Tolosako Leidorren

**Hor  
al zaude?**



# Zizurkilen, Alegian eta Ikaztegieta ikasturte amaiera

**Eskolak** » Zizurkilgo Pedro Mari Otaño, Alegiako San Juanekoek eta Ikaztegieta-koek bukaturte jaia izan da nagusi.

**ASIER IMAZ/NEREA URBIZU**

Eskualdeko hainbat eskola eta ikastoletan ikasturte zaharrari agur esan zioten atzokoan jaialdi alaietan bitartez. Ikaztegieta, Alegian eta Zizurkilen haur eta gurasoek jaiarekin bat egin zuten. Zizurkilgo herri eskolak dagoeneko 25 urte bete ditu, eta honen harira festa handiagoa egin zuten.

Zizurkilen ikasleek ikasmaila

ezberdinetan banatuta zeuden eta herri eskolaren 25. urteurrenaren ospatzeko baliatu zuten atzoko eguna. Gurasoek haien umeei ikusten asko gozatu ahal izan zuten.

Arratsaldean, batuka entzuteko aukera izan zuten bertaratu zirenek, bazkariaren ondoren. Haurrak, gero, puzgarrietan salto egiten aritu ziren. Afari garaiera arte iraun zuten jaiak.

**Ikaztegieta egun osoan zehar** Ikaztegieta egitarau oparoa presaturte zuten ere, kirolari eta aisiari lekua eginez. Dantzariak, futbola eta pilota partidak, bazkaria, puzgarriak... izan zituzten egun osoan

zehar. Bazkaltzeko beta ere hartu zuten eta bi txandatan hantxe bertan bazkaldutuz: lehenengo txikiak eta gero, guraso eta irakasleek. Guraso elkarteak antolatu zuten dena eta eguraldi ona aprobetxatuz, festa plazan are politagoa ateraz. Puzgarriak eta malabare taillerak izan zuten arratsaldearen erdiadetik aurrera.

**Alegian arratsaldez**

Ikasmaila ezberdinetan banatuta, frontoia lepo, emanaldi anitza eskaini zuten Alegian. Merienda baino lehen, irakasleek oparitxo bat jaso zuten 6. mailako eskutik.

Bertso paper lehiaketako sariak ere banatu zituzten: aurturten izan den maila ona aipatu zuen Felix Irazustabarrenak, etasaria jaso zutenak hauek izan ziren: Alex Gokoetxea, Alex Irazustabarrena eta Iker Navarro. Hiruek gai bera zuten, herrietako festetako egitarauaren baitan gehien gustatzen zaiena zer den. Hiru bertsolari gazteek haien sortutako bertsoak zuzenean kantatu zituzten.

Bukatzean, plaza iluntzean afaria izan zuten, bakoitzak berea etxetik eramandakoarekin.



Pedro Mari Otaño herri eskolan, umeen jaialdiko une batean. A. IMAZ



Eskolako frontoian jende asko bildu zen saioaz gozatzeko. A. IMAZ



Ikaztegieta, kirola egin ondoren, dantzarien txanda izan zen. Alegian, Grease interpretatu zuten 6. mailako ikasleek. Ondo prestatu zuten hiru herrietako ikasle guztiak egin beharrekoa. A. IMAZ/N. URBIZU

**Zeure irabazle!**

Orain, 3€ bakarrik ordainduta

eskuratu Trioa Zuntz Optikoarekin  
[Despega 6M + TB Digitala 70 + Deialak]

Finkotzatuko Deialak, 24 ordain  
Tribu 70 Kanal  
Bareta Zabala mugapabea, 6 Mbit  
Haurre gabeko moderna DOAN  
Serbizio-kuota sartzen da  
Alta eta instalazioa DOAN

Eta, gainera, eskuratu  
Alcatel OT 330 hau oparil!



San Francisco 39, Tolosa  
943 909 526

Bereziki Digitala



Irabazlearen izena 2008ko maiatzaren 15ean, 16:00etan irabazlearen izena erabakitzen da. Irabazlearen izena erabakitzen duen orduan, irabazlearen izena ez da irabazlearen izena izango. Irabazlearen izena erabakitzen duen orduan, irabazlearen izena ez da irabazlearen izena izango. Irabazlearen izena erabakitzen duen orduan, irabazlearen izena ez da irabazlearen izena izango.





## Txapelketari agur, gaur

**BALIARRAIN** » Atzo goizean zehar I. Baliarraingo Frontenis Txapelketako zortzi finalistek ligaxka jokatu zuten. Duela hiru asteburu hasi zen Frontenis Txapelketa, eta gaur bertan txapelduna eta txapeldunordea nor diren erabakiko dute: 3. eta 4. postuek 11:30ean jokatu dute Baliarrainen, eta finala, ondoren, 12:30ean. Jendea, noski, gonbidatuta dago. A. IMAZ

# Danena-Olaederrako Jon Tecedor pultsularia hil da moto istripuz

**Villabona** » Atzo arratsaldean bertan Zizurkilen jokatu zen Euskadiko Txapelketan aritu behar zuen.

### ERREDAKZIOA

Jon Tecedor Aginaga, Villabona-ko Danena-Olaederra Halterofilia taldeko pultsularia hil zen atzo arratsaldean, motoz izandako istripuaren ondorioz. Zizurkilen arratsaldean bertan Euskadiko Txapelketan jokatu behar zuen, Gipuzkoa ordezkatu behar zuela-rik. «Eguerdi hitz egin genuen berarekin eta Zizurkil aldera zetorren», adierazi zuten erabat lur jota taldeko arduradunek.

Hain zuzen ere, A-8 errepidean jazozenez beharra, Donostia pare-

an, moto istripuan. Tecedor gidari zihuan; 13:20an izan zen istripua, Aritzetan, hiribururako noranzkoan. Ertzaintzak jakitera eman zuenez, errepidetik irten egin zen Tecedorrek gidatzen zuen motoa (Honda markakoa) eta kolpearen ondorioz hil zen gidaria.

### «Oso gogorra izan da guztiontzat»

Ezbeharraren berri izan zutenean taldeko ordezkariek «lur jota» gertatu ziren, Tecedor «oso gertuko» zutelako.

Hala ere, eta Tecedorren koinatak berak hala eskatuta, Zizurkilgo Euskadiko Txapelketa ez zuten bertan behera utzi. Eskualdeko ordezkariek, beraz, parte hartu zuten, ezustean harrapatu zituen ezbeharraren eragina agerian bazegoen ere. «Une oro» izan zuten

Tecedor gogoan baina bereziki txapelketaren hasieran gogoratu zuten.

Izan ere, Danena-Olaederra taldekoentzat kolpe «oso gogorra» izan da. Batis Kortajarena prestatzailea bera ere oso hunkiturik zegoen: «Oso gogorra izan da, sinetsi ezinik gaude», azaldu zuen.

### Olinpiar Jokoetan izan zen Tecedor 2000. urtean

32 urte zituen Jon Tecedorrek, eta Lasarte-Oriakoa zen jaiotzez (Gipuzkoa). Elektrizista izateko ikasketak eginak zituen, baina 1994tik urteetan halterofiliara dedikatu zuen.

2000ko Olinpiar Jokoetan ere parte hartu zuen, Sidney. 105 kilo baino gehiagokoan finalean izan zen, eta hamalagarren bukatu zuen.

# Emakumea Pilotari Egunean 60 emakumek hartu zuten parte, pilota eta festa giroan

**Irura** » Gipuzkoako Partaidetzako I. Txapelketa Herrikoian Hernaniko Tejedor eta Galdeano izan ziren txapeldunak.

### NEREA URBIZU

Atzo Iruran Emakumea Pilotari Eguna ospatu zuten Gipuzkoako txoko ezberdinetatik etorritako 60 emakumek. Hauek urtean zehar 25 urtetik gorako paleta ikastaroetan aritu dira eta atzo erakustaldi bikaina eskaini zuten Irurako frontoian.

Festa giroan igaro zuten egun guztia: Emakumezkoen Gipuzkoako Partaidetzako I. Txapelketa Herrikoia jokatu zuten, guztira 8 bikote izanik. Honetan, Hernani izan zen txapeldun Donostia I bikotearen kontra. Palan aritu zirenak Idoia Tejedor, Kristina Galdeano (txapeldunak), Josune Uribe



60 emakume inguru joan ziren Irurara, Emakumea Pilotari Egunaz gozatzera. Txapelketaren ondoren, denek oroigarri bat jaso zuten. A. IMAZ

eta Mirari Urbizu (Donostia I) izan ziren. Beste pala jokalarien animoak entzutea oso erraza zen, hortxe aritu ziren hurbiletik tantoak ikusten. Finala jokatzen Donostia I eta Hernani aritu ziren. 14-4 irabazten

ari zen Hernani, eta Donostiako aurrelariak (Josune Uribe) tirazo bat izan zuen eskuineko hankan. Une horretan bertan partida bertan behera gelditu zen, jokalaririk ezin izan zutelako jarraitu.

katea bertan zegoela aprobetxatuz, sariak berak ere banatu zituen. Oroigarri gisa 60 emakumeek kirolerako poltsa bana jaso zuten, eta txapeldunek, txapela, garaikurra, urdaiazpikoa eta opari bana.

Kiroltasun handiz aritu ondoren, bazkaria izan zuten denek eta

parranda egiteko aukera aprobetxatu zuten lagun artean, adin oso desberdinetakoak denak.

Iaz, Amasan ospatu zuten Emakumea Pilotari Eguna. Datorren urtean, aurtengo giroa ikusita, ez da zaila izango antolatzen, gogo falta behintzat ez zegoen.

### GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA DONOSTIA

Teoria eta praktika  
Ekainaren 30etik uztailaren 25era  
eta Irailaren 1etik 26ra  
**Ordutegia:** 09:00etatik 13:30era,  
astelehenetik ostiralera  
**Ikastaroaren prezioa:** 300 euro  
**Izena emateko:**  
943-32 71 72 (Gipuzkoako AEK)

**IZAN IRAKASLE AEKni!**



### Ingelesa ikasi nahi al duzu?

### Ikastaro trinkoak

Hasiberri eta aurreratuentzat  
uztailean goizez

**PAUSOKA** akademia

Berazubi, **TOLOSA**  
627 008 439 • 686 971 962

Jatorrizko irakaslearekin

### Sari banaketa eta bazkaria

Partida bukatu ondoren, irakasle-  
en arteko partida bat izan zen, era-  
kustaldi moduan, hain zuzen.

Ondoren sari banaketa egin zu-  
ten, eta Marimi Ugalde Irurako al-

### Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Pertsona bat behar  
da Anoetan hiru haur zaintzeko.  
Uztailean goizez. 659981687.



Txapeldunak saria jaso berri ondoren. A. IMAZ



Iparagirren eta Anjela Kerejetaren papera egiten kultur batzordeko bi kide aritu ziren, eta sketx motzen bidez, aurkezpenak egin zituzten. PATXI RENOBALDES

'Herria kantuan' emanaldi berezia Alegiako Kultur Etxean eskaini zuten herritar artistek bertaratu zirenen gozamenerako, eta denen sentsazioa berdina izan da: «borobila» atera zen.

## Anjela eta herria, kantuan

### NEREA URBIZU

**A**njela Kerejeta alegiarraren eta Joxe Mari Iparagirren Alegiara bueltatu ziren joan den asteko ostiralean. Nahikoa kontu izan zituzten gogoratze eta azaltzeko gaur egungo Alegiako herritarrei. *Herria kantuan* saio berezia aurkezteko bueltatu ziren iraganetik. Umore puntuarrekin, saio berezi hartako herritar artistak aurkeztu zituzten, beste herriko hiru emakume heldu eta bi gazterekin batera.

Alegiako Kultur Batzordearen ideia izan zen ekitaldi hau antolatzeara. Helburua? Etxeko produktio bat egitea, protagonista, batez ere, musika izanik. Bi ordu inguruko saioa eskaini zuten artista hauek guztiek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean, 200 lagunengainean. Ez ziren gehiago izan, lekurik ez zegoelako, izan ere, jende asko geratu zen txartelirik gabe, saioa ikusi gabe. Dantzariak, txalapartariak, bertsolariak, gitarrak, ahots finak eta gozoak... Denetik izan zen.

Anjelak eta Joxe Mari berak ere asko gozatu zuten emanaldi horretan. «borobila» atera zen emanaldi hartan. Emozionatu ere egin ziren, eta saioa «oso-oso ondo» atera zela zioten bukatutakoan. «Ondo, parte-hartzaileen aldetik, eta ondo ikustera joan zirenen aldetik, erantzuna oso ona izan zelako. Bertan izan ginen guztiak oso pozik atera ginen handik».

Egun hartan izan zitekeen kezketak bat, emanaldi antizari jarraipena, segida ematea zen, «azkenaurreko entseguan ez baikinen

denak elkartu», baina ostiralean bertan denak biltzea lortu zuten, eta emanaldian, «dena segidan joan zen, oso ondo, eta saio edo emanaldi desberdinez osatutako emanaldia funtzio bakar batean lotzea eta egituratzea lortu genuen».

### Gozamena oholztan

Anjelak eta Joxe Mari barre «gustura» egin zuten ostiralean, eta baita bertara joan ziren 200 ikusleak ere. «Hasieran, ez horrenbeste, baina saioak aurrera egin ahala, jendeak parte hartu zuen, ikusleek gozatu egin zuten guk bezala». Askok nabaritu zuten gozamen hori herriko argazki eta irudi zaharrek, Edu Arrayetek prestatutakoarekin, hain zuzen.

Bukaeran, agur moduan, herritarrekin batera bi kanta abestu zituzten parte hartu zutenek, hauek berriz oholztaratu zirelarik: *Anttoni Antton* eta *Ixil Ixil* izan ziren kantu horiek. «Jendeak bukareran gehiago eskatu zuen: hori seinala ona da». Kantu hauek, Antton Iztueta altzotarraren ekarpenaren bidez kantatu zituzten.

### Egindako lanak balio izan du

Anjelak esan bezala, «berriz herrira bueltatzeko? Gogoak baditugu bueltatzeko eta jendeak eskatu duen saio berezi hau egiteko, baina noiz ez dakigu. Berriz eginez gero, oraingoan bezain borobila aterako al da? Gure aldetik gustura bueltatuko gara, baina datorren urtean, edo neguan». Argi dago, jendearen erantzuna «mundiala» izan zen.

Anjela, Joxe Mari eta konpainia



Herriko dantzari helduek ederki prestatu zuten haien emanaldia. P. R.



Barre egiteko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek, līñaxi eta konpainiarekin. Bukatzeko, denek batera abestu zuten. PATXI RENOBALDES

dutore-dutore atera ziren, Izaskun Lopetegiren eta Amaia Zabala ardura-tu baitziren horretaz: makillatu, apaindu, orraztu... Ezkutuan, oholztaratu gabe, baina haien lana ere behar izan zen, saioa are borobila ateratzeko.

«Mundiala» atera zen denen laguntzarekin. Kultur Batzordeak,

bereziki Amaia Zabala, Izaskun Lopetegiren, Edu Arrayet eta Antton Iztueta eskertu nahi izan ditu. Nola ez, parte-hartzaileei ere bai eskerrak eman nahi izan dizkiete, besteak beste, «honen atzean lan izugarria egon delako». Urduritasun horrek, beraz, parte-hartzeileok, merezi izan du.



Ohitura bihurtu da betizu jatea Ugarten. A. IMAZ

## Betizu jatea antolatu dute hilaren 28an, Ugarteko frontoian

### ERREDAKZIOA

Hilaren 28an, Ugarten betizu jatea antolatu dute. Horretarako izen-emate epea zabaldu egin dute, eta honetarako azken eguna hilaren 22a izango da. Txartel hauek Goikoetxeenea tabernan daude eskuragarri, Ugarten bertan. Betizu-jatera edozein etor daiteke noski, ugarterrek gustura hartatuko dituzte bertakoak ez direnak ere.

27 euro ordaindu behar da, txorixo egosia, betizua letxugarekin, lazitoak eta kafe kompletua jateko. Haurrek 12 eurotan izango dute. Ugarteko frontoian bazkalduko dute 14:00etatik aurrera.

Aurten betizua frontoian bertan prestatuko dute, eta ugarterrek gainera. Normalean kanpotik etorritakoek prestatu izan dute, baina aurten bertakoak animatu egin dira.

## Abaltzisketako zaldi lasterketan parte hartzeko izen-emate epea zabaldu dute

### ERREDAKZIOA

San Juanetako jaiak gainean dira, eta festak dituzten herriek egitaraua zehaztuta dute ia. Abaltzisketan, esaterako, San Juan jaietan zaldi lasterketa antolatu dute aurten ere. Amezketaren eta Abaltzisketa arteko 2 kilometro eta erdi inguruko ibilbidean eginen da. Laburra da, baina oso ikusgarria. Hilaren 22an izango da, 18:00etan.

Izena emateko epea datorren ostiralean ixten da. Interesa dutenek 605 75 67 43 telefono zenbakira deitu behar dute. Aurtengo zaldi lasterketa antolatzen duten bederatzigarren urtea da.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Abaltzisketa.** San Juan jaietan, 22an, 18:00etan, zaldi lasterketa antolatuta dute Amezketa eta Abaltzisketa artean. Izen-ematea, udal-letxean.
- **Altxo.** Hilaren 23tik uztailearen 24ra arte antolatuta dute ludoteka. Begirale izan nahi duenak izena udal-letxean eman behar du. Interesdunak 18 urte beteta izan behar dituzte eta esperientzia, izatekotan, kontuan hartuko dute. Ludoteka 18an hasiko dira prestatzen.
- **Ibarra.** Udalak 2008ko San Bartolome jaietako egitaraurako bozeto lehiaketarako lanak ekainaren 20a baino lehen Benito Izagirre kultur etxean entregatu behar dira. Gaia libreza izango da. Ibarren bizi edo eta ikasten duten haur guztiek aurkeztu ahal izango dute.
- **Tolosa.** Bihar, odol bankoa etorriko da Kultur Etxera 18:30etik 20:30era.
- **Tolosa.** Uztailearen 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatuta elkarrean. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

### Kirolak

- **Altxo.** *Kirolari atekak zabalik:* natur

ibilaldia Araxes ibaira 09:00etan; 11:00etan hamaiketakoak frontoian; eta 11:30etik aurrera pilota partidak.

- **Baliarrain.** Baliarraingo frontenis txapelketako finala, 12:30ean
- **Tolosa.** Gimnastika erritmikako emanaldia Usabal kiroldegian 10:00etan.
- **Tolosa.** Ekainaren 28an, 16:30etik aurrera Spinning festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea [www.kilometroak.net](http://www.kilometroak.net), egunean bertan, [kmk.ikuskizunak@ikastola.net](mailto:kmk.ikuskizunak@ikastola.net) edo 688 658004 telefonoan.

### Jaiak

- **Tolosa.** Laskorain Ikastolaren Eguna ospatuko dute Usabalen: 10:30ean bizikleta ibilaldia; hamaiketako; ikasleen emanaldiak; bazkaria; tailerrak; puzgarriak; pilota finala...
- **Ibarra.** Gazte Festak: gaur azken eguna; egitaraua: 12:30ean poteoa; 14:30ean bazkaria Xeplan; 17:00etan bertso poteoa Unai Gaztelumendi, Eneritz Zabaleta, Jokin Labaien eta Ander Lizarralderekin; 18:00etan Loatzo musika eskolaren saioa plazan eta 21:00etan Lendakaris Muertos Gaztetxean.

### Zinema

- **Tolosa.** *Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal* filma emango dute Leidor aretoa: gaur 17:00etan 19:30ean eta bihar (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### Hitzaldiak

- **Lizartza.** Bihar, *Elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzen ikastea* hitzaldia emango dute Sonia Ulaziak eta Elena Iraolagoitiak Kulturgunean 17:00etan.

### Erakusketak

- **Alegia.** Alegiako jubilatuen ta-

bernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitarte.

- **Tolosa.** Myriam Orkoien ibartarrak olio-pinturak eta akriliko abstraktoak ditu ikusgai Fronton kafe-tegian.
- **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika lanak daude ikusgai Lanbroa tabernan.
- **Villabona.** Ramon Garciaeren berritar jantzien erakusketa Gurea aretoa gizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsalde 17:00etatik 22:00etara, Oinkari dantza taldeak antolatuta.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Arantxa Sarasola (Ibarra).**

Zorionak zure urtebetze egunean, etxeko guztien partetik!



### Urte askoan!

Zorionak denen partetik. Biharko partetik. Aurten zenbat, amona?

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

### » GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
  - **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5, 112.
  - **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5, 112.
- BIHAR**
- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
  - **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Ekainak 20  
Ostirala • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



**TOLOSA MOTOR, S.A.**

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tfn: 943-850327 Fax: 943-852938

e-mail: [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)

**Bipper Berria**



tolosaldeko hitza.

**iragarkilaburrak.com**

zure iragarkia tolosaldetik eta leitzaaldetik euskal herrira

**iragarkilaburrak.com**  
euskal iragarki laburraren arloa